

Piztizaleon berriak: ABENDUA

Migel Mari Elozegi*

la oharkabeen urteko egunik motzenetan eta gaurik luzeenetan murgildu gara. Tarteka, eguzkia ikusten dugu, baina garaiotan alfer antza dabilenez, gora igotzen hasi orduko, eta berotasun handirik igorri aurretik, beherantz egiten du ziztu batean.

Abenduan lehen elurtea irits daiteke Euskal Herriko bazter askotara. Argazkian, elurtea Leitizan.

M.M. Elozegi


Mendira irteteko arropa askotxo eramaten ohituta gaude, baina tipulak adina geruza jantzita ere, iparrak jotzen duenean ezin da denbora luzez atarian geldirik egon. Izan ere, sudurra, behatzak..., eta konturatu orduko gorputz osoa, hoztu eta gogortzen baitira. Aktibitate handiko udazkenaren ondoren negua iritsi zaigu. Animalia batzuentzat lasaiagoa izan badaiteke ere, negua orokorrean gehienentzat gogorra suertatzen da. Gizakioi dagokigunez, gaur egun ditugun jantzi egokiak, etxea berotzeko sistema modernoak

eta abar direla eta, inork gutxik dio beldurra neguari, baina hauxe zen animalia gehienentzat bezala gizakiontzat ere urtaro gogorrena. Gogoan dut gure herriko aitona batek tenore honetan botatzen zuen esaldi tristea: "Ea negua pasa eta udaberriraino iristea lortzen dugun." Eta hauxe bera izanen da, hain zuzen ere, animalien hurrengo hilabeteetako erronka: udaberriraino iristea.

Iparraldeko bisitariak

Turismo-bulegoetan bestela uste badute ere, hauxe izan daiteke Euskal Herrian atzerriko bisitari

Giro freskoa Endarako inguruetan.



M.M. Elozegi

NATURA

gehien dugun garaia. Izan ere, sa-soi honetan migrazioan etorritako milaka eta milaka hegazti dabilta gure lurraldean barrena bazka bila. Basoan emandako bi orduko itzulian, Eskandinaviako txontak, Poloniako mokolodiak, Eskoziako kaskabeltzak eta Britainiako oilagorra altxa daitezke. Norbaitek pentsa lezake ezinezkoa dela nongoak diren jakitea eta egia esan, ez da batere erraza. Dena den, ornitologoen hegaztiei jartzen dizkieten eratzunen bidez, hau eta askoz ere informazio gehiago jasotzen da, eta pixkanaka, negua bertan pasatzen duten hegaztien jatorria argitzen ari da.

Zaborra jaten

Urdaila bertsoan hasiz gero espezie askok azken aldiaren ugarien dugun bazkari ez dio muzin egiten. Gizakion inguruan bakerik ez badago ere... zaborra pilaka dagoenez, hainbat animaliak guk sortutako hondakinak aprobetxatzen ederki ikasi dute. Honela bada, bisitatzeko leku erakargarrienak ez badira ere, zabortegetara bisitan joatea piztizaleontzat aberasgarria gerta daiteke oso. Izan ere, arratoiak, azeriak, miruak, beleak, eta batez ere kaiok bazkatzen ikusteko leku aproposak dira. Amiamoko zuriek ere elika-

gai-iturri hau ustiatzen dute eta dirudienez, honek azal dezake, neurri batean behintzat, hegazti hauen migratzeko ohitura-aldaketa. Izan ere, garai batean ez bezala, gaur egun zikoina zuri batzuk Iberiar penintsulan bertan gelditzen dira Afrikara iritsi gabe.

Ubarroiak Lasarte-Orian

Arrantzaleek gehiegi maite ez dituzten arren, gero eta gehiago dira gure lurraldera negu-pasa hurbiltzen diren lertxun eta ubarroiak. Azken urteotan, asko dira esate baterako Lasarte-Oria inguruan autobidearen pareko zuhaitzetan elkartzen direnak. Ez ote dute kotxe eta zalapartaz beteriko leku hau baino aproposagorik? Auskalo! Dena den, lekua gustukoa dutela dirudi, iaz 100 ubarroitik gora ikus baitzitezkeen ia egunero Oria ibaiaren inguru horretan. Nolanahi ere, erne ibili hauek ikusi nahi baldin badituzue, eta noski, kotxea errepidetik kanpo utzi ondoren begiratu, autobideetik egitea arras arriskutsua da eta.

Beste batzuk araldian

Gizakioi, (ia?) urte osoa araldian ematen dugunez, arraroa gerta lebiguke beste animalia batzuek hala ez jokatzea. Alabaina, gainontzeko animalia espezieetan normalena ugaltzeko tenore finko samarra izatea da. Azeriaren araldia, adibidez, hilabete honen bukaera aldera hasiko da. Basurdeena ere oraintsu gertatzen da, eta aketzek

kirats berezia botatzen dute. Emeak estali nahian, arren artean liskarrak sor daitezke eta ez da arraroa izaten batak besteari letaginekin zarrataren bat egitea. Saiak ere araldian ditugu. Dotore asko, eztei-hegaldian bikoteak bata bestearen gainean zeruan bueltaka planeatzen du, eta une batean, goian dagoen arra hankak luzatuz azpian duen emea ukitzen saiatuko da. Gero, arkaitz-labarraren batean zalapartaka kopulatuko dute eta egun batzuen buruan erruten hasiko dira. Putreak, beraz, gure hegaztien artean goiztiarrenak dira erruteko orduan, eta batzuek hilabete honen erdialderako egingo dute!


Azeria araldian sartu da.
Argazkiko hau zeharo despistatuta
zegoen bikotearen arrastoa usaintzen.

M.M. Eloseg



Antzigarrak ezin politago
utzi ditu Aralarko basoak.


M.M. Eloseg



Ubarroiak Ori ibaiaren ertzetako zuhaitzetan Lasarte-Orian. Ubarroiak eta lertxunak, nonahi ager daitezke neguan zehar.



M.M. Elosegi



guari aurre egiteko: energiarik ia ez erretzea. Beste hainbeste egiten dute muxarrek, marmotek, edo saguzarrek. Animalia hauek guztiak hibernatzaileak dira eta uda bukaera eta udazken aldera bapo janez, gantza metatu zuten. Aldi berean, neguko zuloa prestatzeari ere ekin zioten (marmotak belar lehorreko ohe goxoa egin zuen, eta hartzak adarrezko kamaina eroso) eta negua hasi bezain laister zulora sartu ziren. Dena den, ez pentsa gero hibernatzea erraza denik! Izan ere, oso gutxi dira hau egin dezaketen odol beroko espezieak. Hibernazioan metabolismo-mailak behera egiten du eta horretarako aldaketa sakonak eman behar dira: bihotz-taupaden erritmoa eta gorputzeko tenperatura jaitsi egiten dira, eta arnasa guztiz moteldu; eta horrelaxe, loaldi sakon horri eutsiko diote udaberria iritsi bitartean. Ordura arte ongi lo egin, eta negu ona pasa!



* Biologoa

Muturluzea ibaietan

Muturluze piriniarra, Pirinioetatik hasi eta Kantauriar mendikaterainoko ibai eta erreka garbietako ugaztun xelebrea dugu. Satorraren antza du, baina honek ez bezala, muturluzeak buztan luze-luzea ageri du. Uretako ornogabe-ehiztari amorratua da eta atzeko hanka palmatuaz baliatuta ikargarrizko erraztasuna du erreka harri-tartean hauen bila ibiltzeko. Ugaztun honen tamaina txikia dela eta, gorputzaren tenperatura mantentzeko premia metaboliko handiak ditu, eta ehizean jo eta ke ari behar du. Negu aldera, tenperaturak jaitsi eta ibaiak hazi egiten

direnez, garai latzak irits daitezke ugaztun ezezagun hauentzat.

Negurako janaria gordetzen

Asko dira negurako janaria gordetzen duten espezieak: erleak, txingurriak, lepazuriak, katagorriak edota... gizakiak ere. Bai horixe! Gaur eguneko bizimoduan nabarmen antzematen ez bada ere, duela urte gutxira arte baserrietan txukun-txukun prestatu-rik egoten ziren irina, gaztainak, eztia, gatz edo oliotan kontserbatu-rik elikagaiak, eta abar pilatuta. Ohizkoa zen, eta izaten jarraitzen du oraindik ere, tenore honetan txerri-hiltzea. Txerria hil ondoren, odolkiak, txistorrak, urdaiazpikoak-eta prestatzen ziren behar zenean jateko. Gaur egun eta hozkailu eta izozkailuak erabiltzen direnetik, garai bateko kontserbek garrantzia galdu dute.

Zerri galanta hil berri dute baserrian. Pisatu ondoren, garbitu eta txukun-txukun prestatuko da puska bakoitza.

Muturluzea errekan igeri. Urpeko zomorro-ehiztari honentzat urteko garai latzenetakoak iritsi dira.



M.M. Elosegi



Hibernatzaileak lotan

Shhhhh! Ez oihurik egin, lotan dago eta! Elurrak erdi estaliriko zuloan oihanetako jauna lotan dago. Sendo, lodi, ilaje bikainez jantzita, hartzak estrategia bikaina du ne-